

# Kudeaketari eta arriskuei buruzko kontsiderazio orokorrak

## I- Mendien mehatxu nagusiak

Gaur egun, mendiek era guztietako mehatxuei aurre egin behar izaten diete; mehatxu horien jatorri nagusia jarduera deskontrolatuen zuzeneko edo zeharkako efektuak dira.

Arrisku horiek ez dituzte zuhaitzak soilik ukitzen, baizik eta baita mendian dauden espezie guztiak ere, bai animalia-espeziak eta bai landare-espezieak, eta horien bizileku diren ekosistemak ere bai.

Gure basoek gaur egun aurrez aurre dituzten mehatxu eta arrisku batzuk honako hauek dira:

- **Baso-suteak.** Baso-suteek, naturalek zein probokatuek, animalia-espezieen habitata suntsitzen dute, eta horren eraginez horien populazioak murriztu egiten dira eta beste leku batzuetara joan behar izaten dute elikagai eta babes bila; hori egitean, ekosistemaren oreka naturala aldatzen dute, berau fauna-flora-ingurune loturetan oinarritzen baita. Halaber, suteek landare-estalkian ere izaten dituzte ondorio negatiboak. Izan ere, estalki hori suaren eraginez desagertzen da, eta lurzorua biluzik eta landaretzaren babesa galduta geratzen denez, lurzoruaren higadura areagotu egiten da. Azaleko eta lurpeko uren kalitateak behera egiten du, errekontzan askatu diren partikulen eraginez; izan ere, partikula horiek lurzorian geratzen dira eta ibilguetara iristen dira. Halaber, landaretza galtzearen eraginez libre geratzen den lurzoruaren parte ere ur-ibilguetara heltzen da arrastaka. Suteak gure garaiko mehatxu handienetako bat dira.



- **Higadura.** Lurzoruaren higadura eta desertizazioa deforestazioaren eta laborantza-eremu estentsiboen ondorioak dira, zeren horiek mantengairik gabe uzten baitute lurzorua eta beraren degradazioa errazten dute. Lurzorian belar- edo zuhaixka-estalkirik ez dagoenean eta zuhaitzen sustrairik ere ez dagoenean, horrek nabarmen bultzatzen du azaleko higadura, zeren elementu horiek guztiek lurzoriari eusten baitote euri gogorren eta uholdeen aurrean. Azaleko higaduraren ondorioz, lurzorua pobretu egiten da eta bere lodiera murrizten da.



- **Baso-eremuak ezabatzea, lurzorua beste erabilera batzuetara bideratzeko.** Urtez urte, mendiko baso-eremuak eta zuhaitzik gabekoak ezabatu izan dira, azalera horiek beste erabilera batzuetara bideratzeko, hala nola nekazaritzakoak edo hirigintzakoak. Gaur egun, arazo hori arindu egin da eskumena duten administrazio publikoek mendiak babestera zuzendu dituzten jardueri esker, baina gure basoek izan duten mehatxu arruntenetako bat izan da.



## Baso-kudeaketa jasangarria

Kudeaketari eta arriskuei buruzko kontsiderazio orokorrak

- **Abeltzaintza estentsiboa abandonatzea.** Gaur egun, landa-eremu askotan ikusten dugu abeltzaintza estentsiboa baztertu egin dela. Aziendak oso rol garrantzitsua jokatzen du mendian, zeren eragozten baitu sastrakak basoak inbaditzea; izan ere, inbasio horrek oihanpe trinkoak sortzen ditu, eta horrek suteen hedapena areagotzen du. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak positiboak dira, betiere jasangarriak badira eta baliabideak gehiegi ustiatzen ez badituzte.
- **Biodibertsitatearen galera.** Orokorrean, biodibertsitateak Lurrean bizi diren milioika organismo bizidun berdingabe deskribatzen ditu, baita haien arteko elkarreraginak ere. Organismo horiek gure bizitzako funtsezko elementuak dira, baina mehatxupean egoten dira etengabe. Biodibertsitatearen galera gizakiok mendian gauzatzen ditugun ekintzen zuzeneko ondorioa da, baina arrazoi naturalengatik ere gerta daiteke. Biodibertsitatearen galeraren arrazoietakoa bat espezie aloktonoen sarrera da, espezie horiek bertoko espezieen populazioak desplazatu edo suntsitzen dituztelako; beste arrazoi batzuk orain arte aipatu ditugunak dira: baso-suteak, higadura, kutsadura, baliabide naturalen gehiegizko ustiapena edo baso-eremuen ezabaketa.
- **Izurrite eta gaixotasunak.** Beste eskualde batzuetatik datorren landare-material infektatua sartzearen eraginez, izurrite eta gaixotasunak hedatu egin dira lehen horrelakorik pairatzen ez zen eremuetan. Izurrite eta gaixotasun horiek euren garapen eta hedapenerako baldintza egokiak aurkitzen badituzte, kalte larriak sor ditzakete bertoko basoetan, eta espezieak desagerraraztera ere eraman dezakete.
- **Klima-aldaketa.** Klima-aldaketaren eraginez tenperatura eta prezipitazioetan gertatzen diren aldaketek euren garapenerako baldintza egokiak galdu dituzten espezieen banaketa aldatzen dute. Klima-aldaketak, gainera, baso-suteen arriskua igotzen du, tenperaturaren igoeragatik eta prezipitazioen jaitsieragatik; gainera, lurzoruaren higadura areagotzen du, zeren euri gogorak eta uholdeak sarriagotan gertatzen baitira beraren eraginez. Klima-aldaketaren ondorioz, kasu batzuetan baldintza egokiak sortzen dira intsektu edo onddo jakin batzuk ugaltzeko, eta horrek kalteak sortzen ditu baso-masa handitan.
- **Turismomasiboa. Azken aldi honetan, ingurune naturalarekin eta basoekin lotutako turismoak gora egin du nabarmenki.** Turismoaren masifikazioa, ingurune naturalarekiko eta bertan bizi diren izaki bizidunekiko sentsibilizaziorik ezarekin lotuta, mendiak dituen arriskueta bat da; izan ere, horren ondorioa baso-ekosistemen degradazioa da.
- Azken aldi honetan, batez ere Covid-19aren pandemia hasi zenez geroztik, natura- eta landa-ingurunearekin lotutako turismoa areagotu egin da.





## Baso-kudeaketa jasangarria

Kudeaketari eta arriskuei buruzko kontsiderazio orokorrak

Mendiek babesa eta zaintzak behar dituzte mehatxu eta arrisku horiek guztiek ukitu ez ditzaten edo ahalik eta gutxien ukitu ditzaten.


Mendietan aplikatu behar den kudeaketa-eredua Kudeaketa-planetan definitzen da, baso-baliabideak babesteko, lehengoratzeko eta modu jasangarrian aprobetxatzeko ekintzak bilduz.

Gainera, mendiko bisitari bakoitzak bere jokabidea zaindu behar du, zeren bertan egiten duenak ondorioak izango baititu ingurunean.

## II- Gauzatzen diren ekimenak / Kudeaketa jasangarria.

Gaur egun, zenbait ekintza gauzatzen dira, eta horietatik mehatxu edo arrisku jakin batzuei dagozkien batzuk nabarmenduko dira:

- **Baso-suteak.** Arazo handi bat dira ingurune naturala kontserbatu eta zaintzerakoan. Suteak itzaltzeaz gain, urtean osoan zehar lan ugari egin behar dira sute horiek prebenitzeko, baso-tratamenduak eginez (inausketak, soilketak, sastraka kentzea, eta abar). suaren hedapena eragozteko. Halaber, beharrezkoa da zenbait eremutan suebakiak sortzea, sutearen intentsitatea murrizteko, eta pistak eta ur-deposituak ere eraikin behar dira, itzaltze-lanak errazteko.



- **Higadura hidrikoa.** Ereku bakoitzean dauden baliabideak -hala nola ura, lurzorua eta landaretza- modu integratuan kontsideratu behar dira. Faktore horietakoren bat aldatzen bada, higadura hidrikoa sor daiteke aldaketa horren ondorioz. Baso-masen garrantzi handia arroetan duten kokapen geografiko estrategikotik dator; izan ere, gehienak burualdeetan eta erdiko eremuetan daude kokatuta, alegia, euri-prezipitazioak handiagoak diren eta erliebea malkartsuagoa den eremuetan. Horregatik, baso-lurrek funtzio garrantzitsu bat betetzen dute ura eta lurzorua atxikitzen dituzten elementu gisa, zeren higadura-prozesuak eragotzi edo murrizten baitituzte. Horregatik, beharrezkoa da leku horietan landaretzarik ez galtzea eta **Baso-osasunerako** planak egitea. Mendien osasuna mantentzea funtsezko printzipio bat da kudeaketa jasangarria lortzeko. Horretarako, beharrezkoa da landare-estalkian eragina izan dezaketen izurrite eta gaixotasunak kontrolpean izatea.
  - Baso-izurrite batzuen populazioen jarraipena egitea; horien artean, pinu-beldarra dago.
  - Zaintza fitosanitarioa eta izurrite eta gaixotasunen tratamendua.
  - Izurrite nagusien kontrako azterlanak, ebaluazioak eta saiakuntzak.
  - Baso-ekosistemen egoera sanitarioen jarraipena, Baso-osasunaren Sarearen bitartez.
- Mendien zainketarako eta baso-baliabideen kudeaketa jasangarrirako egiten diren beste ekintza batzuk honako hauek dira:
  - Baso-lurrak basoberritzea eta lehengoratzeta. Halaber, espezie aldaketa eta baso-tratamenduak egiten dira, basoberritzeak naturalizatzeko.
  - Espazio naturalen, floraren eta faunaren babesa.
  - Kudeaketa zinegetikoa.
  - Arrain-kudeaketa. Populazioei buruzko azterlanak, ikastaroak, eta abar.
  - Baso-sektorearen sutapena. Laguntzak eta diru-laguntzak.
  - Ingurumen-prestakuntza eta -hezkuntza. Hezkuntza-kanpainak prestatzea; ingurumen-ekipamenduak, hala nola interpretazio-zentroak; eta dibulgazio-ikastaroak.
  - Paisaia eta biodibertsitatearen kontserbazioa eta hobekuntza.